

## **BELAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO**

### **1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.**

HASTAPEN BELA (OPTIMIST)

### **2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.**

EZ DAGO ALDAKETARIK

### **3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.**

Zurezko ontziraiekua edo ontzitegia

- a. Bela arinean espazioak egokitu egingo dira, mastak jartzen edo kentzen diren bitartean ontzien artean 4 metroko urruntze fisikoa lortzeko.
- b. Itsasora irteteko hurrenkerak ezarriko dira. .
- c. Itsasoratzeko orgatxoak jaso eta kargatzeko gailu bat ezarriko da, marinelen edo boluntarioen laguntzarekin.

Arrapala

- a. Ontzitegian bezala, sartzeko eta irteteko txandak ezarriko dira, bertan pilaketak saihesteko.
- b. Ontzien azalera behar bezala garbituko da.
- c. Uretaratzeei laguntzeko eta itsasoratzeko gailuak ezarriko dira marinel eta boluntarioen laguntzaz.

Ontziak

Ikastaro bakoitzaren ondoren, talde berri batek desinfektatuko ditu ontziak, erabili aurretik.

Aldagelak

a. Federazioak gomendatzen du orain udan ez erabiltzea, eta ikasleak bustitzea ontzia garbitzen den bitartean aire libreko dutxan edo mahukekin.

B. Bainugelak egunero desinfektatuko dira, eta, ahal dela, egunean 2 edo 3 aldiz, ikasle-kopuruaren arabera.

Eskolak eta gelak:

Klase eta azalpen guztiak zazpiko taldeetan emango dira, begiralearekin batera, aire zabalean, ahal denean; bestela, ikasgeletan emango dira, talde txikietan, maskarekin eta segurtasun-distantzia errespetatuz.

Ikasleak

a. Ikasleek tenperatura-kontrol bat pasatuko dute instalazioetara sartzean.

b. Uneoro, ikasleak maskara erabiliko du; maskara galdu edo hautsiz gero, zentroak beste bat emango dio ikasleari.

c. Ikasleak higiene pertsonaleko neurriak zorrotzuko ditu, batez ere eskuetan.

d. Nabigazioan erabilitako arropa ontziko materialarekin batera bustiko da. Arropa hori busti ondoren, plastikozko poltsetan utziko da, eramateko. Poltsa horietan berriz garbitu beharko da ikasle bakoitzaren etxean, nabigatu ondoren norberaren arroparen higieua mantentzeko.

e. Kirola egin ondoren, eskuak garbituko dituzte edo gelak eta soluzio hidroalkoholikoak erabiliko dituzte desinfektatzeko.

f. Bileretan 2 metroko distantziari eutsi behar zaio, eta, ahal dela, haizearen norabidean kokatuko dira.

#### **4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduerak.**

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten